

KULTUR GUNEAREN 6. BILERA

BERTARATUAK:

- Belen: Kultura teknikaria.
- Gemma: Lesakako Abesbatza.
- Patxi: Beti-Gazte (Kultura).
- Arritxu: Tantirumairu Euskal Folklore Taldea.
- Edurne: Lesakako Txistulari Taldea.
- Eneko: Bertso Eskola eta Arrano Elkarte.
- Santi: Arkupe Elkarte.
- Isabel eta Amadeo: Giltzarri Abesbatza.
- Begoña: San Fermin Jubilatuen Elkarte.
- Nekane: Lesakako Trikitilariak.
- Ione: Geroa Bai Udal taldea.
- Iban, Ladis eta Mattane: EH Bildu Udal taldea.

Ibanek sarrera egin du eta bileraren gai-ordena aurkeztu du:

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da.
2. Liburu Xuria: Herriko eragile/taldeek informazioa bilduko duen liburuaren proposamena egin du Udalak. Elkarren berri izateko eta bakoitzaren funtzionamendua ezagutzeko. Publikoa izanen litzatekeen liburua, euksarri fisiko eta digitalean eginen genukeena. Hau egitea ongi ikusi da eta onartu da. Hurrengo bilerarako talde bakoitza bere informazioa osatzen hasiko da.
Zer informazio idatzi beharko genuke? Laguntza modura, Herriko Etxetik galdera sorta bat bidaliko diete taldeei. (Akta eta deialdiarekin batera atxikita izanen duzue). Liburu honen gastua Udalaren gain izanen da.
3. Kultur bilgunearen izen-proposamenak: Asti gehiago behar dugula argudiatuz, hurrengo bilerarako proposamenak ekarri eta bertan aukeratuko dugu izena. Hala ere proposamen batzuk izan dira: Alde batetik, kulturarekin erlazioa izan duen lesakar baten izena (Santiago Irigoien, Pepito Ianzi, Rafael Eñeterreaga...), musika partitura batena (Napoleones) eta bertzalde toponimoren batena (Marimakur, Sorginxulo).
4. Belenek azaldu du, Udalaren webgunean *banner* sortu dela Kulturbilguneko informazioa bertan izateko. Aktak, deialdiak eta araudia bertan argitaratzea proposatzen da eta ahobatez onartu da. Bertzalde, Ttipi-ttapatik bilguneko bileren

deialdia zabaltzeko baimena eskatu dutela, eta hau ere arazorik gabe egitea ikusi dugu.

5. Antzineko bileran aipatu bezala, Ibanek herriko kultur taldeen zerrenda ekarri du. Araudian zehaztu genuen eragile bakoitzak bozka bat izanen duela; eta *zein dira eragile horiek?* Taula aztertu dugu eta bertan onartu direnek bozka bat izanen dute erabakiak hartzeko tenorean. Bi talde falta dira zerrendan gehitzeko: Lesakako Emakume Taldea eta EH Bildu. Sevillana taldeari sartu nahi duten galdetuko zaio. Bertaratzeen erregistroa eginen dugu eta 2019ko irailetik kontatzen hasiko gara.
6. Kezkak eta beharrak: Hemendik aitzin bilkurak Harriondoako Zumarra aretoan eginen ditugu, azaroa-abenduko kultura agenda zabaldu da eta kabalgataren inguruko informazioa eman. Bertzalde diru-laguntzen inguruko informazioa eskatu da.

Hurrengo bilerarako bilgunearentzako izen-proposamenak ekarri eta bozkatuko dira, ordurako onartzen badira, diru-laguntzen berri emanen du Udalak eta Liburu Xuriaren osatzeari ekinen diogu.

Bilera abenduaren 14ean, goizeko 09:30ean eginen dugu Harriondoako Zumarra artoan eta ordu eta erdiko iraupena izanen du.